

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Lizitazioa, Zuhatzu Kuartangon dagoen antzinako bainuetxea egokitzeko obretarako

2016ko irailaren 26an balio osoz egindako ohiko bilkuran onartu zelarik klausula juridiko eta ekonomiko-administratibo berezien eta teknikoen agiria, zeinak arautuko baitu Zuhatzu Kuartangon dagoen antzinako bainuetxea egokitzeko obrak kontratatzeko lehiaketa publikoa, jendaurrean jartzen da zortzi egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera egon dadin aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko; erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geratuko da.

Aldi berean, lehiaketa publikoa iragartzen da; dena dela, lizitazioa atzeratu egingo da administrazio klausulen agiriaren aurka erreklamaziorik aurkezten bada.

Oinarriak

1. Erakunde esleitzaila: Kuartangoko Udala.
2. Xedea: Zuhatzu Kuartangon dagoen antzinako bainuetxea egokitzea.
3. Esleitzeko modua: prozedura irekia.
4. Agiriak eta argibideak eskuratzea:
 - a) Erakundea: Kuartangoko Udala
 - b) Herria eta posta kodea: Zuhatzu Kuartango – PK 01430
 - c) Telefonoa: 945362600
 - d) Faxe: 945362633
 - e) Kontratatazailearen profila: Web orria: www.kuartango.org
6. Lizitazio oinarria: 289.672,52 euro gehi 60.831,23 euroko BEZa.
7. Gauzatzeko epea: hiru (6) hilabete.
8. Eskaintzak aurkeztea:
 - a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 26 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
 - b) Eskaintzek jasoko behar dituzten dokumentuak: klausula ekonomiko-administratibo berezien eta teknikoen agirian adierazitakoak.
 - c) Eskaintzak aurkezteko lekua:
 1. Erakundea: Kuartangoko Udala
 2. Herria: Zuhatzu Kuartango. Posta kodea: 01430.
9. Eskaintzak irekitzea:
 - a) Erakundea: Kuartangoko Udala

b) Data: eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hirugarren egun balioduna. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

c) Ordua: 13:00

Zuhatzu Kuartango, 2016ko irailaren 26a

Alkatea

EDUARDO FERNANDEZ DE PINEDO GONZALEZ